


# BIZIKASI

Ziberjazarpen kasuen aurrean  
ikastetxeetan jarduteko  
orientabideak



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2020ko azaroa • © Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazioa. Hezkuntza Saila • Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) •  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia /  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San  
Sebastián, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz) • Maketazioa: EkipoPO

# Sarrera



Johan Galtung soziologoaren esanetan, indarkeria sortzen da J pertsona batek ezin dituen bere gaitasunak ahalik eta gehien garatu, faktore mugatzaileak edo eragozleak dituelako. Eskola-eremuan, ikaskideen arteko indarkeriak asko zaildu eta higitzen du gaitasun horien garapena, kolokan jartzen baitu ikasleok erabat garatzeko eta eskola-inguruneari atxikitzeko behar duten segurtasuna.

Kalitatezko bizikidetza sustatzen duten ikuspegiak, estrategiak eta tresnak eman behar zaizkio hezkuntza-komunitate osoari; hori funtsezkoa da, estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako kultura- eta genero-ikuspegiak gainditzen laguntzeko. Alde horretatik, Bizikasik modu proaktiboan jardun behar dela azpimarratzen du etengabe, ahalegin handiena elkarbizitzaren kalitatea zaintzera bideratuz.

[Ziberjazarpena](#) jazarpen mota bat da. Baina zenbait berezko ezaugarri ditu, ezagutu beharrekoak direnak, eta jokabide horri zentzu espezifiko eta, batzuetan, apartekoa ematen diotenak. Geroago aipatuko dugu zein diren ezaugarririk garrantzitsuenak.

Sare sozialen erabilera hedatuta dago, orokorrean, eta horrek komunikazioa trukatzeko aukerak handitu ditu, eta aldi berean, eragin argia du harremanen prozesuan gertatzen diren jarreretan eta jokabideetan. Izan ere, sare sozialen erabilerak dimentsio berri bat ematen die harremanei, ziberbizikidetzaren terminoarekin loturik isla daitekeena: [ziberjokabidea](#).

Praktikak erakusten duenez, jokabidearen eremu hori [ikaskuntza-arlo](#) bihurtu da baita ere, eta beraz, hezkuntza-eremuaren bidez landu dezakegu.

Zoritxarrez, modu presentzian gertatzen den bezala, harreman birtualeko prozesuetan ematen diren jokabideak ez dira beti bizikidetza positiboaren parametroen barruan garatzen, eta ikasleen

ongizate sozioemozionala larriki urratzen duten egoerak sortzen dira. Bizikidetzaren positiboaren aurkako jokabide horien artean, ziberjazarpena nabarmentzen da, zitalkeria dariolako.

COVID-19k eragindako konfinamenduaren ondorioz bizi izandako egoerak lehen planoan jarri du eskola-jazarpenaren modalitate hori; hau da, adingabe batek edo adingabeen talde batek beste adingabe bat atsekabetzen, mehatxatzen, jazartzen, umiliatzen, lotsarazten edo jomuga bihurtzen du baliabide teknologikoen bidez, hala nola posta elektronikoen, web-orrien, sare sozialen, online jokoen edo telefono mugikorretako mezuen bidez (Aftab-en egokitzapena, 2010).

Ziberjazarpen-kasuak kudeatzeko, funtsezkoa da irakasleen –batez ere tutoreak eta BAT taldeko kideak– eta familien arteko lankidetzaren, egoera horien aurrean orientabideak emateko, laguntzeko eta esku hartzeko. Era berean, ezinbestekoa da berehala esku hartzea, jokabide horiek eragin dezaketen kalte izugarria saihesteko.

Ziberjazarpen-jokabideak erantzukizun zibilen esparruan sar daitezke, baita erantzukizun penalen eremuan ere; azken horiek geroago zehaztuko ditugu.

Orientabide hauen helburua da nabarmentzea zein diren oinarritzko irizpideak hezkuntza-erlotik presazko erantzunak eman ahal izateko ziberjazarpen-kasuei.

## Erantzun nahi ditugun funtsezko gaiak

- Zein dira ziberjazarpenaren ezaugarri bereizgarriak?
- Zein dira ziberjazarpenaren jokabiderik ohikoenak?
- Zer lege-ondorio izan ditzake ziberjazarpenak?
- Nola jokatu behar dute ikastetxeek eta biktimizatutako adingabeek?
- Zer arau landu behar dira online hezkuntza-egoera batean?
- Nola salatu abusuzko jokabideak eta nola eskatu laguntza?


# Aurkibidea



Bullyngia eta ziberbullyngia: antzekotasunak eta desberdintasunak .....	7
Antzekotasunak.....	7
Desberdintasunak.....	8
Ziberjazarpen-jokabide ohikoenak .....	10
Ziberjazarpena: esku hartzeko orientabideak.....	12
Berehalako jarduketak.....	13
Jazarpena jasaten duten ikasleak babesteko premiazko jarduketak.....	14
Genero-ziberindarkeria. Nerabeen arteko kontrol-indarkeria .....	16
Ziberjazarpena: esparru juridikoa.....	18
Ziberjokabidea. Online jarduteko arauak .....	20
Ohiko galderei erantzuten .....	22
Estekak, errekurtsuak eta WEB helbideak .....	26
Abusuzko jokabideak salatzeko estekak.....	26
Errekurtsuak .....	27
Web-helbideak.....	27



# Bullyinga eta ziberbullyinga: antzekotasunak eta desberdintasunak



Ziberbullyinga bullyingaren modalitate espezifiko bat da, eta gertatzen den ingurune birtualari dagozkion ñabardurak ditu. Gainera, nabarmendu behar da cyberbullyingean jarduteko bi modu izan daitezkeela:

1. Bullying-egoera sortuta dago jada, eta egoera hori berresten jarduten dute; biktimak bere erasotzaileak ezagutzen ditu.
2. Aurrekaririk gabeko jokabideak; hau da, mezu jazarleak, mehatxuak, bazterketa esplizituak, erasoak, etab. jasotzen hasten da biktima baliabide teknikoek bidez, erasotzailearen nortasuna eta jazarpen-jokabidearen "zergatia" ezagutu gabe. Batzuetan, horrelako jazarpenak egiten aritu ondoren, erasotzaileek aurrez aurreko ekintzak egiten dituzte, modu presentzian (Hernández Prados, 2006).

## Antzekotasunak

- Botere-desoreka / Babesgabetasuna

Ziberjazarpenean, botere-desoreka maila sozialean edo psikologikoan gertatzen da, gehienbat. Nolanahi ere, jazarpenak eta ziberjazarpenak eragin berbera dute, alegia, biktimaren zaugarritasuna agerian jarriz, botere-desoreka bat sortzen da, eta botere-abusuaren bidez, biktimari babesgabetasuna sortzen zaio.

- Intenzionalitatea

Bi kasuetan, helburua da biktimari kaltea eragitea. Printzipioz, tolesgabetasunak edo konpetentzia digitalik ez izateak eragindako kalteak ez lirateke ziberjazarpenzat hartu behar;


aitzitik, ziberjokabidearen arrisku pertsonal eta sozialetako bat dira (Ortega, 2015).

- Errepikapena

Ikertzaileen artean gehien eztabaidatzen den ezaugarrietako bat da. Izan ere, irainak erasotzailearen kontrolpetik kanpo ugaltzeko erraztasuna hain da nabarmena eta irismen handikoa, ezen autore batzuen ustez, ziberjazarpenaz hitz egiten denean, zentzu hertsian, ez litzateke errepikapenez hitz egin behar, ez baitago modurik kontrolatzeko eraso zenbat aldiz errepikatzen den. Ondorioz, jokabide erasotzaile bakar batekin biktimizazioa sor daiteke.

- Pertsonalizazioa

Jokabide jazarleak ikasle jakin batzuingana zuzentzen dira, ez dira orokorrean ematen. Hala ere, hasiera batean jazartzeko asmorik ez duten sareko zuhurtziagabekeriak ziberjazarpen bihur daitezke, sarean lehertu eta kontrolaezin bihur baitaitezke.



## Desberdintasunak

Itena	Nolakoa den ziberjazarpena jazarpenaren aldean
“Tempo” / Azkartasuna eta erosotasuna	Ikaragarri azkarragoa, leherkorragoa eta kontrolrik gabekoagoa da, eta egiteko askoz errazagoa da, lotura fisikorik ez dakarrelako.
Errepikapena	Eraso bakar batekin kalte handia egin daiteke, alegia, biktimizazioa sor daiteke.  El acoso se puede llevar a cabo desde cualquier sitio y en cualquier momento
Intenzionalitatea / Zuhurtziagabekeria	Jazartzeko asmoz egin ez diren zuhurtziagabekeriako jokabideen ondorioak nahita egindako erasoenak bezain larriak izan daitezke.
Nonahi eta noiznahi egiteko aukera	Jazarpena edozein lekutatik eta edozein unetan egin daiteke.
Entzuleria zabala	Ziberjazarpenean entzule bereziki asko izan daiteke, eta esparru eta espazio birtual ugarian gerta daiteke, eta ondorioz, publikoarekiko agerpena handitu egiten da, eta kaltea esponentzialki biderkatu.
Babesgabetasuna	Ziberjazarpenean ez dago babeslekurik, ez dago non ezkutatu. Babesgabetasun-sentsazioa bullyingean baino handiagoa da.
Esposizio maila	Ziberjazarpenean garrantzi berezia hartzen du "iritzi publikoak". Lotsaren sentimendua askoz ere handiagoa da, eta horrek areagotu egiten du biktimaren autoestimuari egiten zaion kaltea, eta zaildu egiten du erresilientzia-prozesua.



<b>Iraunkortasuna denboran</b>	Jazarpenaren edukia jazarpena egin den tokian bertan geratzen da baldin eta ezabatzen ez bada, eta horrek jazarpena "sine die" betikotzen du.
<b>Baliabideak</b>	Askoz ere anitzagoak dira, askotariko baliabide teknologikoetan oinarritzen baitira guztiak, nahiz eta jazarpenaren modalitatea ez aldatu (xantaia, irainak, etab.).
<b>Geldiaraztea</b>	Oso zaila da erasoak geldiaraztea behin sarera iristen direnean
Jazarleen anonimotasuna eta "ikusezintasuna"	Anonimotasunak biktimizazio-sentimendua larriagotzen du, eta, aldi berean, erasotzailearen zigorgabetasun-sentsazioa areagotzen du. Anonimotasunak desinhibitze-efektua sortzen du, eta horrek jokabide jazarlea sustatzen du.
<b>Ondorioak</b>	Ezin dira aurreikusi, ez epe laburrean, ez etorkizunari begira. Irudiak eta testuak betiko gera daitezke sarean. Bizitza propioa hartzen dutela esan daiteke.
<b>Ikerketak</b>	Askoz mugatuagoak dira. Izan ere, ikastetxeek ez dute gaitasun juridikorik ikasleen arteko komunikazioetan esku hartzeko, baldin eta ikastetxean bertan edo ikastetxeko baliabide teknologikoekin egin ez badira. Ertzaintzak / Udaltzaingoak esku hartu beharko luke.
<b>Eskolaren eta familiaren arteko lankidetzak</b>	Funtsezkoa da, ez bakarrik garrantzitsua.
<b>Legezko erantzukizunak</b>	Jazarpenaren kasuan baino handiagoak eta larriagoak dira.


Nolanahi ere, kontuan izan behar da, bullying presentzialean bezala, jokabide horiek berdin taldeetan gertatzen direla, alegia, beste ikasle askoren ([ikusleen](#)) begien aurrean, eta, beraz, ikasle horiek betetzen duten zeregina erabakigarria dela fenomeno hori ulertzeko, eta jazarpen-kasuak kudeatzeko eta ebazteko.

Zoritxarrez, bullyingean bezala, ziberbullyingean ere, erasotzailearen jarrera bultzatzen eta babesten duten jardueraz gain, beste erantzun sotil asko daude, eta erantzun sotil horiek gauzatzen dituztenak konplize bihurtzen dira: irribarreak mespretxuaren aurrean, mezu umiliagarriak birbidaltzea, zurrumurruek zabaltzen parte hartzea, iruzkin mespretxagarri baten aurrean "like" bat markatzea, eraso bat onartzea emotikonoen bidez, etab.; horiek egiten dituztenak ere erasotzaile bihurtzen dira.


Alde horretatik, faltsua eta arriskutsua da pentsatzea jazarpenean rol "neutrala" gauzatu daitekeela. Jazarpen-jokabidearen aurrean erantzunik ez emateak indarkeria normalizatzen eta naturalizatzen du; izan ere, hori eginez gero, indarkeria inposatu egiten da deskonexio moraleko mekanismoen bidez.

Beraz, ziberjazarpena geldiarazteko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateko kide guztiak gertatzen ari denaz ohartaraztea, eta edozein motatako indarkeriaren aurkako —ziberjazarpena barne— [jarrera argia eta garbia hartzea](#).

# Ziberjazarpen- jokabide ohikoenak




Kowalsky et al (2010) autoreek honako kategoria hauen arabera Kordenatzen dituzte ziberjazarpen-jokabideak:




Honako taula honetan, kategoria horiekin lotutako jokabide batzuk zehazten dira.

<b>Kategoria</b>	<b>Hezkuntza-ingurunean ematen diren jokabideak</b>
<b>Irain elektronikoak</b>	Elkarri irain egitea, modu pribatuan edo testuinguru birtual publikoetan, denbora-tarte labur batean.
<b>Jazartzea</b>	Biktima bati mezu iraingarriak bidaltzea behin eta berriz eta denbora luzean.
<b>Laidoztatzea</b>	Beste pertsona baten gaineko informazio mespretxuzkoa eta faltsua eta zurrumurruek zabaltzea, eta jokabide umiliagarriak, etab. eragitea, webgunearen, telefono mugikorren, sare sozialen eta abarren bidez.
<b>Ordeztea</b>	Biktimaren nortasuna ordezteka, profil faltsu bat sortuz edo sarbide-gakoa erabiliz, eta beste pertsona batzuei eduki desatseginak, iraingarriak edo oldarkorrek bidaltzea sare sozial batean, mezuen foro batean, txat batean, etab., biktimak berak bidali izan balitu bezala.
<b>Agerian jartzea eta esanaraztea</b>	Biktimaren informazio konprometitua beste pertsona batzuei ezagutaraztea, informazio hori modu espontaneoan eta pribatuan edo biktimari esanarazita eskuratu ondoren.
<b>Bazterketa</b>	Pertsona bat sare sozial batetik aktiboki baztertzea, eta parte hartzen ez uztea.
<b>Ziberjazarpena</b>	Mezu desatseginak edo mehatxagarriak bidaltzea behin eta berriz e-postaren, txaten eta abarren bidez, edo biktima jazartzea eta zelatatzea harremanak dituen sare sozialetan.
<b>Jipoi zoriontsua (happy slapping)</b>	Pertsona bati fisikoki eraso egitea eta hori mugikorrarekin bideoan grabatzea, eta ondoren, bideo hori sare sozialetan jartzea.



# Ziberjazarpena: esku hartzeko orientabideak



Esku hartzeko proposamenak honako hauek barne hartu beharko lituzke: probentzioa (bizikidetzaren positiboa eraikitzea sustatzen duten antolaketa neurriak, hautu metodologikoak eta curriculum jarduerak); lehen mailako esku-hartzea (neurri espezifikoak aplikatzea ziberjazarpen-egoera hasiberriak detektatzen direnean); eta bigarren mailako esku-hartzea (inpaktua minimizatzea eta biktimak babestea, jazarpen-dinamika etetea, jokabide erasotzailea duten ikasleak kontrolatzea eta neurri berrezartzaileak aplikatzea).

Orientabide hauek lantzerakoan, probentzioaren eta lehen mailako esku-hartzearen ikuspegiak ez galtzen saiatu gara. Hala ere, kontuan hartuta aurreko ikasturteko konfinamenduak zer nolako egoera eragin duen, eta ikusirik ahalik eta tresnarik arinena izateko beharra dugula, orientabideak soilik bigarren mailako esku-hartzearen eremuan eta ziberjazarpenaren alderdi espezifikoaren gainean kokatzea erabaki da. Horrek ez du esan nahi indarreko eskola-jazarpenaren [Jarduera](#) Protokoloa nahitaez bete behar ez denik; protokolo hori hemen arautzen da: Hezkuntza Sailburuordearen ebazpena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gertatzen diren eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraibideak arautzen dituena.

Bestetik, EMICIk (Ziberbullyingari buruzko Ikerketarako Diziplina Anitzeko Taldeak) egindako «[Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa](#)»k ez du eskola-jazarpenaren jarduera protokoloa ordeztzen; aitzitik, osagarria izatea du helburu, hala eskatzen duten kasuetan.

## Berehalako jarduketak

### Ahalik eta azkarren

Ziberjazarpena dela-eta esku hartzeko eskaera baten aurrean, funtsezkoa da ahalik eta azkarren jardutea; izan ere, sare barneko hedapena esponenziala eta kontrolaezina da. Horregatik, indarreko Jarduera Protokoloan adierazitako epeak ahalik eta gehien laburtuko dira. Horrek ez du eragotziko ikastetxeak beti jardun behar izana behar diren datuak biltzen jarraitzeko irizpidearekin, azaldutako jokabideei buruzko balorazio objektiboa egin ahal izateko.

### Ebidentziak biltzea

Egintzak eskola-ingurunean edo ikastetxeko baliabide teknologikoekin gertatu badira, ikastetxeak gertaerei buruzko frogak eta ebidentziak lortu eta gorde beharko ditu, hori funtsezkoa izango da, hau da: emailak, sms-ak, mezularitza-plataformen eta sare sozialen bidez jasotako mezuak (WhatsApp, Telegram, Instagram, Tik-Tok, Snapchat, etab.) gorde beharko ditu, eta, hala badagokio, baita pantaila-argazkiak ere, jazarpen- edo beldurrarazte-prozesuaren edota -egoeraren froga moduan erabili ahal izateko.

Egintzak eremu pribatuan gertatu badira eta zentroak horren berri izan badu, familiari jakinaraziko dio garrantzitsua dela gertatutakoari buruzko frogak eta ebidentziak lortzea eta gordetzea.

### Jazarpenaren Protokoloa eta 201/2008 Dekretuko Jokabidea zuzentzeko prozedurak

Egintzak eskola-ingurunean edo ikastetxeko baliabide teknologikoekin gertatzen diren guztietan, eskola-jazarpenaren Jarduera Protokoloa irekiko da, eta, beharrezkoa bada, baita 201/2008 Dekretuko Jokabidea zuzentzeko prozedura ere. Horretarako, erreferentziatzko ikuskatzailearekin harremanetan jarri beharko dira.

Horrez gain, egintzak ikastetxean gertatu ez arren egiaztatzen bada eskola-jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan araututako zentzuan, kasu horretan ere, aurreko paragrafoan deskribatutako moduan jokatu da.

### Salaketa Ertzaintzaren edo Epaitegi-Fiskaltzaren aurrean

Ikastetxeek ez dute legezko ahalmenik sare sozialetan ikasleek jasotako eta bidalitako mezuak ikertzeko eta arakatzeko, baldin eta beren gailu partikularretan sortu badira. Hori poliziaren edo justiziaren eginkizuna da. Horregatik, larritasunaren arabera, gertakarien berri eman behar da, eta fiskaltzari edo polizia kautelazko babes-neurri egokiak eskatu behar zaizkie.

Polizia-instantziak edo instantzia judicialak jarduten duen bitartean, ikastetxeak irekita duen protokoloa / jokabideak zuzentzeko prozedura kudeatzen jarraituko du, epaitzen ari diren egintzei buruzko datuak bilduz eta, hala badagokio, instantzia honi horien berri emanez, baldin eta datu horien ondorioz kasua ebazteko ebidentziaren bat ikusten bada.

### Jazarpena pairatzen duten ikasleekin eta haien familiekin harremanetan jartzea

Ikastetxeak izendatzen duen pertsonak (tutoreak, BAT taldeko kideak, eta abarrek) harreman iraunkorra izan behar du egunero, edota baita hainbat unetan ere egun berean zehar, beti ere modu diskretuan.

Familiaren eta ikastetxearen artean jarduera koordinatua izatea funtsezkoa da, eta norabide berean eta helburu bereberekin lan egin behar dute. Hori hala egiten ez bada, lehen kaltetua erasotua izango da.

## Ustez jokabide erasotzaileak dituzten ikasleekin eta haien familiekin harremanetan jartzea

Ziberjazarpenari buruzko ebidentziaren bat dagoen guztietan, eta nahiz eta soilik aztarna bat izan —esaterako, erasoak jasan duten ikasleen mugikorren pantaila-argazkiak izan—, ikastetxeko zuzendaritza jardunean hasiko da erasoak eteteko. Ikasleari eta bere familiari ohartaraziko die jokabide horiek geldiarazi egin behar direla eta ondorioak izan ditzaketela; ondorio horiek maila pertsonalekoak edo pertsona artekoak izan daitezke, baita hezkuntza mailakoak zein maila judizialekoak ere, baldin eta jokabide horiek egiazkoak badira.

Ziberjazarpen-jokabidearen zantzuak daudenean, kautelazko neurriak ezarriko dira. Kasu horretan, telefono mugikorraren eta Interneten erabilera gainbegiratuko da edo horiek aldi baterako kendu, kasuaren eta ziberjazarpen-motaren arabera. Neurri horiek ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) edo Barne Araudian (BA) agertu beharko dira.



## Jazarpena jasaten duten ikasleak babesteko premiazko jarduketak

### Jazarpena jasan duten ikasleentzako eta haien familientzako gomendioak

Ikasle batek ziberjazarpena jasaten duenean, familiak edo gertuko pertsonak interesa agertu beharko liokete pairatzen ari den egoeraz, bere emozioez eta sentimenduez; hori egitea garrantzitsua da. Laguntzeko jarrera azaltzea lehen mugarria izan daiteke egoera horretatik ateratzen hasteko, familiak ematen dion konfiantzari esker tentsio emozionala deskargatu ahal izango baitu.

Familiak laguntzeko jarrera hartzeak, gainera, baditu beste osagai garrantzitsu batzuk ere. Izan ere, laguntza horri esker, jazarpena jasan duenak, pixkanaka-pixkanaka, segurtasun-estrategiak bereganatu edo hobetu ahalko ditu sarean egiten dituen parte-hartze berrietan, besteak beste: ziberjazarpena egin diona blokeatu; sarean defendatuko duen lagun talde bat bilatu; jaso dituen erasoak sareko kudeatzaileen bidez ezabatzea lortu; pantaila-argazkiak atera frogarri bezala erabili ahal izateko; probokazioei erantzuteko beharrik ez izan, etab. Hori guztia ere ziberjazarpenetik modu erresilientean ateratzeko oinarria izango da.

[Bideo](#) honetan, prozesu hori nolakoa izan daitekeen azaltzen da.

*Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloaren 3. eta 4. kapituluetan, eta [bideo](#) honetan, familiari eta erasoak pairatu duten ikasleei zuzendutako gomendioak eta jarduerak deskribatzen dira.*

## Ikastetxeak laguntza ematea jazarpena jasan duten ikasleei

Helduen laguntza emozionala funtsezkoa da; gidari-lana egiten dute eta konpainia eman, eta egoeraren jarraipena egin dezakete. Jazarpena jasaten ari den pertsonak aukeratuko du erreferentziako pertsona hori.

Biktimarekin egin beharreko urratsak honako hauek izan daitezke:

- Gertutasun emozionala eta enpatikoa erakustea.
- Erruduntasun-sentimendua saihestea.
- Konfiantza erakustea.
- Eman diren erantzunak eta beste aukera batzuk aztertzea.
- Aurre egiten trebatzea.
- Erabakiak martxan eta praktikan jartzea.

Arestian aipatutakoaz gain, oso lagungarria izango litzateke ikasle ziberlaguntzaileen inplikazioa izatea, baldin eta ikasle horiek alde zuzeneko prestakuntza jaso badute.

## Ikasle-ikusleekin lan egitea

Esku-hartzeak hasi bezain laster, ziberjazarpena sortzen den testuinguruko alderdirik garrantzitsuenetako baten gainean jardun behar da, alegia, berdinaren taldearen gainean. Ezin dugu ahaztu ikusleek berebiziko garrantzia dutela horrelako portaerak geldiarazteko eta horiek hedatzea eragozteko. Ebidentzia hori kontuan hartzen ez duen jarduera orok porrot egiteko aukera handia izango du.

# Genero- ziberindarkeria. Nerabeen arteko kontrol- indarkeria



Ziberjazarpen-mota hori nabarmendu nahi dugu. Izan ere, askotan, biktimek uste dute ez dela garrantzitsua, edo ez dituzte alarma-seinaleak antzematen eta ezagutzen, edo beldurrak geldiarazi egiten die erreakzionatzeko eta salatzeko behar duten gaitasuna.

Kasu horietan, biktimek, hau da, orokorrean, [bikote-harremanetan](#) hasten diren neska nerabeek, kontrol zorrotza pairatzen dute, eta hori normala eta naturala dela ulertzen dute gehienek, bai egoera pairatzen dutenek zein egoera hori sortzen dutenek ere.

Ziberjazarpen-mota hori gero eta gazteagoen artean gertatzen da, eta etorkizuneko tratu txarren ataria izan daiteke.

[Pantallas Amigas](#) erakundearen honako dekalogo honek hainbat jokabide identifikatzen laguntzen du kontrol-jazarpen gisa.

Genero-indarkeria digitaleko 10 kasu:

- Bikotekidea jazartzea edo kontrolatzea mugikorra erabiliz
- Bikotekideak Interneten beste pertsona batzuekin dituen harremanen tartean sartzea
- Bikotekidearen mugikorra zelatatzea
- Bikotekideak sare sozialetan argitaratzen eta partekatzen dituen argazkiak zentsuratzea
- Bikotekideak sare sozialetan zer egiten duen kontrolatzea
- Bikotekideari exijitzea geolokalizazioaren bidez erakuts dezala non dagoen
- Bikotekidea irudi intimoak bidaltzera behartzea



- Bikotekidea estatusunean jartzea gako pertsonalak eman diezazkizun
- Bikotekidea behartzea beste pertsona batekin izan duen txat bat erakuts diezazun
- Haserrea erakustea, ez dizulako beti berehalako online erantzunik ematen

**Gida** honetan aipatutakoez gain, neska nerabeek jasaten dituzten beste genero-ziberindarkeria mota batzuk ere jaso dira.

# Ziberjazarpena: esparru juridikoa



Estatuko fiskal nagusiaren [10/2005](#) Instrukzioak honako hau adierazten du:

(...) eskola-jazarpenaren kontzeptua metajuridikoa da, eta esangura juridiko-penal desberdinak izan ditzake, falta hutsetik hasi eta delitu astunean amaitu arte.

Egintzek behar besteko garrantzia dutenean, jazarpen-jokabidea 173.1. artikuluan aurreikusitako tipo penalaren arabera kalifikatu ahalko da, hau da, zigortu egingo da beste pertsona bati tratu iraingarria ematen diona eta haren osotasun morala larriki kaltetzen duena.

Ziberjazarpen-jokabideak hainbat tipo penalen barruan sartzen dira; hala ere, badago Estatuan legeria espezifiko bat ziberjazarpena pairatzen duten adingabeak babesten dituen:

- Kode Zibila
- 1/1982 Lege Organikoak, maiatzaren 5ekoak, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoak, honako hau arautzen du: «Konstituzioaren 18. artikuluan bermaturiko oinarritzko eskubideak, ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubide horrek, babes zibila izango du, esku-sartze bidegabe guztien aurrean, lege organiko honetan ezarritakoarekin bat etorriz.» (1. artikulua, 1. apartatua). «Esku-sartzeak delitu-izaera duenean, Zigor Kodean ezarritakoa beteko da. Edozein kasutan ere, lege honen irizpideak aplikatuko dira, delituaren ondorioz sortutako erantzukizun zibila zehazteko.» (1. artikulua, 2. apartatua).
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura

Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen. Lege horren arabera, «Adingabeek ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidea dute» (4.1. art.), eta «Gurasoek edo tutoreek eta botere publikoek eskubide horiek errespetatuko dituzte eta hirugarrenen balizko erasoetatik babestuko dituzte.» (4.5. art.).

- 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa. Lege horrek azaltzen du [eskolak](#) zer-nolako zeregina betetzen duen [eskola-jazarpenaren aurkako borrokan](#) eta prebentzioan.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, [Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa](#).


Horren osagarri, Euskadin indarrean dagoen legeria honako hau da:

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak zaintzeko eta babestekoa.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Kasu guztietan, honako alderdi hauek izan behar dira kontuan:

- a. Arau horiek ez ezagutzeak ez du salbuesten gauzatutako egintzen erantzukizuna.
- b. Erantzukizun penala jokabidearen larritasunaren eta jokabide hori gauzatu duenaren jarreraren arabera izango da. Gainera, erantzukizun zibila ere izan daiteke.

- c. 14 urtetik beherakoei ezin zaie erantzukizun penalik exijitu, eta Kode Zibileko adingabeen babesari buruzko arauetan xedatutakoa aplikatuko zaie. Kasu horietan, normalean, zehapen ekonomikoak ezarriko zaizkie gurasoei edo tutoreei.
- d. 14 eta 18 urte bitartean dutenei, aldiz, egin duten egintzengatik erantzukizun penala ezarriko zaie, eta egintza horiek urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren ondoriozko aginduen arabera epaituko dira.



# Ziberjokabidea. Online jarduteko arauak




Sare sozialen erabilera hedatuak agerian utzi du ziberbizikidetzaren dimentsioa noraino iristen den, eta erabilera horri esker, konfinamendu-garaian gure bizitzan funtsezkoa den gauza bat egiten jarraitu ahal izan dugu, alegia, gure berdinekin komunikatzen eta bizi-erperientziak partekatzen jarraitu ahal izan dugu.

Sare sozialetan ziberbizikidetzaren positiboa lortu ahal izateko, ikasleak hezi egin behar dira, hau da: beren buruarentzako eta beste pertsona batzuentzako [jardunbide egokiak](#) hartzen ikasteko; alderdi teknikoak gainditzeko; eta sareko interakzioetan konpetentzia sozialaren, oreka emozionalaren eta garapen moralaren gaineko irizpideak gauzatzeko hezi behar dira, beti ere hezkuntzaren ikuspegitik (Avilés 2018).


Irakasleak dira, lehenik eta behin, ziberbizikidetzaz ikasteko premia dutenak. Beraz, beharrezkoak diren [konpetentziak](#) eskuratu behar dituzte, beren ardurapean dituzten ikasleekin ziberbizikidetzaren kudeatzeko.

Gaitasun teknikoek gain, irakasleak [komunikazio eta harremanen](#) mailako beste gaitasun batzuk garatu beharko ditu, ikasleekin interakzioa izateko oinarrikoak izango direnak. Alde horretatik, irakasleak funtsezko zenbait jarraibide eta gidalerro jarriko ditu martxan helburu hori lortzeko, hala nola saioak grabatzeari eta zabaltzeari, nork parte har dezakeen erabakitzeari, txata hasteari eta amaitzeari, eta abarri buruzkoak.


Hori guztia oinarri hartuta, honako honen garrantzia nabarmendu nahi da: kalitatezko denbora eman beharko da arauak lantzeko, eta hori ikasleen egiazko parte-hartzearekin batera egin beharko da, espazio birtualean bizikidetzaren positiboa lor dadin eta online interakzioa eraginkorra izan dadin; era berean, arau horiek ebaluatu beharko dira.



Elkarrekin lan egiteko testuinguru horren barruan, eta akordioak lortu ahal izateko, kontuan hartu beharreko zenbait alderdi deskribatzen dira jarraian:

- Sare sozialetan harremanak ondo kudeatzea garrantzitsua da.
  - Sare sozialetan jardunbide egokien kodeak hartzea garrantzitsua da.
  - Interakzio birtualeko prozesuan jarduteko prozedura ezarri behar da.
  - Zibersegurtasunari laguntzeko neurri teknikoak ezarri behar dira.
  - Parte hartzeko jarraibideak eta moduak ezarri behar dira. (Netiketa...)
  - Konpromiso indibidualak eta kolektiboak eskuratuko dira.
  - Ikasitakoak, konpromisoak, aldaketak eta sortutako erreakzioak baloratuko dira.
- 

# Ohiko galderei erantzuten



- a. Irudi bat jarri dute Instagramen. Jarri duenak behin bakarrik jardun du; ziberjazarpena izan daiteke?

Jakina baietz, irudia iraingarria baldin bada!

Hasierakoa eta ekintza bakarra izateak ez du esan nahi ziberjazarpena izateko aukerarik ez dagoenik; izan ere, behin sarera igo ondoren, eraso-ekintza kontrolik gabe errepikatu daiteke.

- b. Xabierrek ez zuen minik emateko asmorik, baina ...

Xabier ez zen konturatzen zuhurtziagabekeriak jokatzen ari zela. Hala ere:

– Bere jokabidearen ondorioak nahita egindako erasoek bezain larriak izan daitezke. Horretarako asmorik izan ez arren ere, azken emaitza ziberjazarpena izan daiteke, Xabierren ezagun batek hark Instagramen jarri zuena erabili baitu Aneri erasotzeko. Behin mezuak edo argazkiak sarera igo direnean, igorlearen kontrolpetik kanpo geratzen dira.

– Igorlea edo bere familia ez dira salbuetsita geratuko gauzatutako egintzen erantzukizunaren aurrean.

- c. Ziberjazarpena gelditu. Nola egin?

Hezitzaileok ekiteko obligazioa dugu ziberjazarpena saihesteko, halakorik gertatzen dela jakiten badugu. Ezin dugu erantzukizun hori saihestu. Premiaz jardun behar da, hau da, jazarritako ikasleari sufrimenduaren kiribiletik ateratzen lagundu behar zaio, jasan duen kaltea konpontzen laguntzeko, bai eta ziberjokabide osasungarria garatzeko estrategiak eta tresnak emateko ere.

Era berean, bere taldearekin eta ikasgelarekin lan egin beharko da. Ziberjazarpenak birrindu egiten ditu berdintasunaren

eta simetriaren oinarriak, hau da, harremanak eraikitzeko nahitaezkoak diren oinarriak. Horregatik, ikastetxeak hezkuntza-mailako esku hartzea egin beharko du gai horren inguruan. Horrelako jokabideak inoiz ere ez ditu alde batera utzi behar, hori ezin da inola ere gertatu.

1. Ikasleak gure ikastetxeok badira:

a. Zantzen berri izaten dugunean, ziberjazarpen-jokabideak dituzten ikasleen familiekin harremanetan jarriko gara, jokabide horiek gelditu eta saretik ken ditzaten. Era berean, ziberjazarpena jasaten duten ikasleen familiekin ere harremanetan jarriko gara.

b. Ikastetxeko zuzendaritzak jazarpenaren jarduera-protokoloa irekitzeko obligazioa izango du, eta hala badagokio, baita 201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura ere.

2. Eraso jasan duen ikaslea gure ikastetxekoa bada, baina jokabide erasotzailea burutu duena ez:

a. Eraso jasan duten ikasleen familiekin harreman estua izan behar da, haiekin jarduteko eta eraso geldiarazteko. Eraso zer-nolakoa den, litekeena da familiak salaketa bat jarri behar izatea ertzaintzan edo fiskaltzan.

d. Balizko ziberjazarpena ikastetxean gertatu da, bertako baliabide teknologikoekin:

Ikastetxeko zuzendaritzak edo hark eskuordetzen duen pertsonak edo pertsonak behar diren miaketak eta ikerketak egin ditzakete zer gertatu den jakiteko, euskarri teknologikoen miaketak eta ikerketak barne.

Gertaeren gaineko frogak eta ebidentziak gordetzea funtsezkoa izango da.

Jazarpenaren jarduera-protokoloa irekiko da, eta, hala badagokio, baita 201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura ere.

Kautelazko neurriak ezartzea balioetsiko da.

e. Balizko ziberjazarpena ikastetxean gertatu da, baina gailu partikularrekin:

Erasoak geldiarazi egin behar dira, hori funtsezkoa da. Horretarako, ikastetxeko zuzendaritzak ustezko jokabide jazarleak izan dituzten mugikorrak ken ditzake, eta zaintzapean utziko ditu Ertzaintzari edo fiskaltzari emateko, ziberjazarpen-zantzuak daudela ikusten bada.

Gertaeren gaineko frogak eta ebidentziak gordetzea funtsezkoa izango da.

Jazarpenaren jarduera-protokoloa irekiko da, eta, hala badagokio, baita 201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura ere.

Kautelazko neurriak ezartzea balioetsiko da.

f. Balizko ziberjazarpena ikastetxetik kanpo eta gailu partikularrekin gertatu da

Eraso jasan duten ikasleen familiekin batera jardun behar da eraso geldiarazteko. Eraso zer-nolakoa den, litekeena da familiak salaketa bat jarri behar izatea Ertzaintzan edo fiskaltzan; izan ere, ikastetxeak ez du gertatutakoak ikertzeko gaitasunik.

Ikastetxeak egintzak ikertzeko gaitasunik ez izan arren, jazarri den ikasleari arreta osoa eskaini beharko dio, aurreko c) puntuan deskribatu den bezala.

Ikasleak ikastetxeakoak diren ala ez kontuan hartuta, arestian adierazitakoaren arabera jokatu da, jazarpenaren jarduera-protokoloa eta 201/2008 Dekretuko jokabidea zuzentzeko prozedurak irekitzeari dagokionez. Gauza bera gertatzen da kautelazko neurriak hartzeari dagokionez.

g. Behin-behineko neurriak har al daitezke?

Ziberjazarpenaren jokabide-zantzuak daudenean, behin-behineko neurriak ezartzea baloratuko da, telefono mugikorren eta Interneten erabilera gainbegiratzuz edo horiek aldi baterako kenduz, kasuaren eta ziberjazarpen-motaren arabera. Neurri horiek ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian (AJA) edo Barne Araudian (BA) agertu beharko dira.

Egintzen larritasunaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzak ustezko jokabide jazarleak izan dituztenen mugikorrak ken ditzake, eta zaintzapean utziko ditu Ertzaintzari edo fiskaltzari emateko, ziberjazarpen-zantzuak daudela ikusten bada.

h. Ziberjazarpena erakusten duen irudia aurkitu dugu, baina ezin dugu jakin nor izan den.

Gogoratu behar da ikastetxeek ez dutela legezko ahalmenik sare sozialetan ikasleek jasotako eta bidalitako mezuak ikertzeko eta arakatzeko, baldin eta beren gailu partikularrekin jaso eta bidali badituzte. Ikastetxeek mezu horiek ikertu eta arakatu ahal izateko, jazarpena ikastetxeko gailuen bidez baino ezin da egin. Aldiz, polizia edo fiskaltzak mezu horiek ikertzeko eta arakatzeko gaitasuna dute

i. Delitu-zantzuak daude. Nola jokatu?

Zaila da balioestea jokabide bat delitu bat edo falta penal bat izan den. Horregatik, horrelako egoeren aurrean, ikastetxeetako zuzendaritzek aholkularitza eskatuko diote Hezkuntza Ikuskaritzari.

Egin daitezkeen jarduketegi begira, 201/2008 Dekretuaren 75. artikulua izan behar da kontuan. Izan ere, hitzez hitz adierazten du ikastetxeko zuzendaritzak aktiboa izan behar duela gertakariak Fiskaltzari jakinaraztean:

75. artikulua. – Jakinarazpena Fiskaltzari.

1. – Izapidegileak jokabide nahiz gertakari egotziak delitutzat edota falta penaltzat har daitezkeela uste badu, halaxe jakinarazi beharko dio zuzendariari, hala badagokio, kasua Fiskaltzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jartze aldera.

2. – Ikaslea adingabea bada, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako ondorioak betetze aldera, ondoko hauek jakinarazi beharko dira ere:

a) Hala bada, hezkuntzaren eremuan jokabideak zuzendu izana.

b) Hala bada, baketzea gertatu izana.

c) Hala bada, konponketa gertatu izana edo konpontzeko konpromisoa hartua egotea.

3.– Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio zuzendariak dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkarari.



Salaketa bat jarri dela-eta, Fiskaltzak kolaborazioa eskatzen badu, zuzendaritzak beti emango du, Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkularitzarekin..

j. Gertaerei buruzko ebidentziak bildu behar dira?

Gertaeren gaineko frogak eta ebidentziak gorde behar dira, hori funtsezkoa izango da, besteak beste: emailak, sms-ak, mezularitza-plataformen bidez jasotako mezuak (WhatsApp, Instagram, Tik-Tok, Telegram, Snapchat, etab.), eta, hala badagokio, pantaila-argazkiak egingo dira, jazarpen-edo beldurrarazte-prozesuaren edota -egoeraren froga moduan erabili ahal izateko.

k. Ikastetxeek ba al dute erantzukizunik ziberjazarpenean?


Ikastetxeetako langileek eta zuzendaritzek ardurapean dituzten adingabeak zaintzeko erantzukizuna dute. Honako hauek dira erantzukizun horiek: in vigilando, in organizando edo in eligendo. Erantzukizun horiek ez betetzeak erantzukizun zibilak ekar ditzake, baita erantzukizun penalak ere, bai banakoenak, baita ikastetxearenak berarenak ere.

Ondoren, adibide gisa, Kode Zibilak gaiari buruz eman dituen zenbait agindu jasotzen ditugu:

- 1902. artikulua: «Norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du.».
- 1903. artikulua: «Pertsona edo erakundeak goi mailakoaz besteko irakaskuntza-zentron titularrak badira, erantzukizuna dute, euren ikasle adingabeek eragiten dituzten kalte-galeren gain, horiek gertatu badira ikasleok zentroko irakasleen kontrol edo zaintzapean dauden bitartean, eta eskolako

nahiz eskolatik kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien ondorioz. Artikulu honek arautzen duen erantzukizuna amaituko da, bertan aipaturiko pertsonen frogatzen dutenean familiako guraso on batek izango lukeen arreta osoa jarri dutela, kaltea saihesteko.».

- 1904. artikulua: «Norbaitek ematen badu bere mendekoek eragindako kaltearen ordaina, horien aurka berreskaera-eskubidea erabil dezake ordaindutakoaren ondorioz. Goi mailakoaz besteko irakaskuntza-zentron kasuan, horien titularrek irakasleei eska diezazkiekete ordaindutako kopuruak, baldin eta irakasleok doloz edo erru astunaz jardun badute, kaltea eragin duten eginkizunak betetzean.».



# Estekak, errekurtsoak eta WEB helbideak

## Abusuzko jokabideak salatzeko estekak

- Haur eta nerabeei laguntzeko zerbitzua: [Zeuk esan](https://www.zeuk.esan.com/) 116111
- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (AEPD): <https://www.aepd.es/es>
- Snapchat: [www.snapchat.com/safety](https://www.snapchat.com/safety)
- Facebook: [www.facebook.com/safety/tools](https://www.facebook.com/safety/tools)  
[www.facebook.com/safety/bullying](https://www.facebook.com/safety/bullying)
- Instagram: <https://help.instagram.com/285881641526716>
- Twitter: <https://support.twitter.com/articles/20169998>
- Tik Tok: <https://support.tiktok.com/es/privacy-safety>

## Errekurtsoak

- Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa
- Prestakuntza-materialak: [Basque Cybersecurity Centre](#)
- Teknologia berrien arloko hezkuntza lantzeko [gida pedagogikoa](#). Erabilera arduratsua, prebentziokoa eta hezigarria.
- Ciberbullying: [prevenir y actuar](#)
- [Pribatutasun-bideotutoriala Facebooken](#)
- [Pribatutasun-bideotutoriala Twitteren](#)
- [Pribatutasun-bideotutoriala Instagramen](#)
- [Pribatutasun-bideotutoriala YouTuben](#)
- [Pribatutasun-bideotutoriala Snapchaten](#)
- [Pribatutasun-bideotutoriala WhatsAppen](#)

## Web-helbideak

- [Bizikasi ekimena](#)
- [Prevención Ciberbullying](#)
- [Internet segura for Kids. INCIBE](#)

